

2019 URTEKO MEMORIA



2019 MEMORIA

a. IZAN

1. BARNE KOMUNITATEA

- a. **Talde Dinamizatzailea:** Irati Iciar (Lehendakaria), Iñaki Lazkano (Idazkaria), Rober Gutierrez (Diruzaina), Yolanda Viadero, Asier Etxenike, Manolo Martinez, Lurdes Lekuona, Azaitz Unanue.
- b. **Langileak:** Azaitz Unanue (Koordinazioa), Aloña del Olmo (Administrazioa), Zuriñe Gil (Aisia/Mintzalaguna), Dorleta Mtz de Albeniz (Mintzalaguna/Aisia), Oier Azkarraga (Kultura/Mintzalaguna), Esti Rodriguez (Komunikazioa/Mintzalaguna), Josu Pedruzo (Euskaraldia), Mikel Chasko (Hezitzailea), Garazi Perez de Guereñu (Hezitzailea) eta Aitor Rodriguez (Hezitzailea).
- c. **ALEAko langileak:** Aritz Mtz de Luna, Anakoz Amenabar, Erlantz Anda, Estitxu Ugarte, Mikel Sz de Buruaga, Mirian Biteri, Esti Lanao.
- d. **AzpiBatzordeak:** Komunikazio eta irudi azpiBatzordea (6 kide, ez dauka bilera egutegi bat aholkularitza lana eginez laguntzen digute).
- e. **Bazkideak: 787.**
 - i. Orokorrean azken urteetan oso egonkorra, baja eta alta kopuru murrizta dugu eta kopuru ia berdinetan izaten dira.
 - ii. Egin genuen datu basearen garbiketarik ordaintzen ez zuten eta beraiekin harremanetan jartzerik ez daukagun kide gutxi batzuk daukagu. Aurtengo ordaintketaren ostean ez badugu hauen ordaintzeta jasotzen, automatikoki baja direla emango diegu, 15 bat dira.

2. GERTUKO KOMUNITATEA: Mintzalagun aktiboak

3. Irakurle Kluba, GEUrekin Mendira, Txosneroak, Oihaneder, ALEA kolaboratzaileak, Entitate lankideak, Erakundeetako Teknikariak, Auzoetako Euskara Elkarateak, Sare Sozialetako bultzatzaileak (Beherago ekimenez ekimeneko balorazioetan aipatuko ditugu hauetako gehienak).
4. **KOMUNITATE ZABALDUA ETA METAKOMUNITATEA:** Mintzalagun ez aktiboak, Igandek jai eta Familia irteeretako partaideak, Euskaraldia Batzordeak, ALEA harpidedunak, Euskararen agenda jasotzen dutenak, Formazioa jasotzen duten hezitzaileak, Kantarin parte hartzen dutenak... (Beherago ekimenez ekimeneko balorazioetan aipatuko ditugu hauetako batzuk).

b.EGIN

1. AISIALDIA
2. KULTURA
3. FORMAZIOA
4. AKTIBAZIOA
5. HEDABIDEAK

1. AISIALDIA

Egitasmoa	Balorazioa
GEUrekin MENDIRA	<p>2020an 25 urte ekimenak eta osasuntsu!</p> <ul style="list-style-type: none"> ● Irteerak: 11. lazko kopuru berdina, irteera kopurua egonkortuta dago. ● Parte hartzaileak: 130 (iaz baino 13 gehiago) ● GEU elkartearen baitan ibilbide luzeena egin duen ekimena da. ● BIBA ZUEK eta ZORIONAK!!!!
TXOSNA	<p>Urte askoren buruan Blusa eta Nesken Batzordearen bitartez kudeatu ostean <u>aurten lehenengo aldiz zuzenean “Euskal gunea” udalaren plegua kudeatzeko aukera izan dugu.</u></p> <ul style="list-style-type: none"> ● Txandak: 205 ● Inaugurazio ekitaldia: Aihotz txot+GEUre Saria+Azido Folkloriko+dantza plaza: 250 ● Igandeak Jai: 90 ● Musika-hotz: Orbanak + Kompost + Izaki Gardenak: 1250 ● OPG afaria: 36 <p>Publikoa: 1831 (iaz baino 1000 gehiago!)</p> <ul style="list-style-type: none"> ● Azken urteetan <u>Kultura Sailarekin sortutako harremanak</u> fruitua eman du, aurrez aurreko harremana izatea lortu dugu. Eta esan beharra dago harremana oso ona izan dela. Aurrerantzean bide honetan sakontzea gustatuko litzaiguke. ● Oso nabarmena da Txosnaren kudeaketa GEUK bere kabuz hartzeko egindako lanak izan duen eragina, bai ekonomikoa zein programazioa eta antolaketa lantzean lortutako askatasuna.

Egitasmoa	Balorazioa
	<ul style="list-style-type: none"> ● <u>Blusa eta Nesken Batzordearekin</u> ez dugu harremana eten, beste modu batetako harremana sortzea lortu dugu. Uste dugu onuragarria izan dela bai GEUrentzat zein B & N Batzordearentzat. ● <u>Aihotz plazako ostalariekin harremanak</u> izan ditugu, erantzun desberdina jaso dugu batzuen eta besteengandik baina orohar elkar ezagutzeko eta errespetatzeko mugak jartzeko balio izan du. Ostalarietako batek interesa agertu du GEUren ekimenean bat babesteko. Bidea honetan jarraitzeari interesgarri deritzogu. ● Ikusten da jaiak aurreko programazioa antolatzen geroz eta finago ibiltzen garela. Eta efizienteagoak ere bagara hornitzaileei dagokionean. ● Edalontzi berrerabilgarriak plazaratzeko erabakia arrakastatsua izan da, hala ere, kudeaketa eta gastuei dagokionean hobetu beharreko esparru batzuk identifikatu ditugu. ● Izaki Gardenak taldeak izandako arrakastak eragin du hein handi batean publikoaren gorakada. ● Baina esan beharra dago OPG afaria ez beste ekimen guztietan izan dugula bilakaera positiboa eta portzentualki bilakaera handiena jaien baitan antolatzen dugun Iganreak Jai saioak izan duela. ● Orokorrean komunikazioan egindako lana nabaritu da. ● Kontzertu “potente” bat egiteko apustua argiki nabaritu da, baina formatu txikiagoko ekintzetan hurbiltasuna izan da arrakastaren oinarria, txosnaren esparruan giro goxoago batean gauzak antolatu izana.
IGANDEAK JAI	<p>Emanaldiak: 9 saio (iaz baino 1 gutxiago)</p> <ul style="list-style-type: none"> ● Komunikazio estrategia berriarekin, lortu da egitasmoaren helburura gerturatzea: familia euskaldunen parte hartzea. ● “Arnasgune” izateko helburuz sortu zen ekimena eta ez masiboa izateko (batez besteko parte hartzea saio bakoitzean 90 lagun) ● Familia barneko hizkuntza ohituretan eragiteko eta aisialdian espazio bat emateko ● Hezitzaileek kudeatu dituzte aurrez-aurreko saioak: materiala eraman, harrera, aurkezpena, tailerra prestatu.... <p>Publikoa: 900 (iazko kopuru berdina)</p>
FAMILIA IRTEERAK	Emanaldiak: 5

Egitasmoa	Balorazioa
	<p>5 familia irteera antolatu dira eta horietako bat bertan behera geratu da (izen-emate gutxi) . Hau dela eta 4 familia irteera egin dira.</p> <p>Partaideak: 72 (iaz baino 22 gutxiago)</p> <ul style="list-style-type: none"> • Balorazio oso onak jaso ditugu eta guk ere balorazio positiboa egiten dugu. • Nahiz eta parte hartzaile gutxiago egon, kontuan izan behar dugu antolatutako ekintzak zeintzuk diren, batzuk parte hartzaile kopuru mugatu txikia bait dute. • Saioen kalitatean nabaritu da izen ematea behar zuten zenbait ekintzaren antolatzean, eremu kuantitatiboan galdutakoa kalitatean irabaziz.
EUSKALAKA	<p><u>AFAren udaleku programaren baitako udalekua</u>, Espejon burutua 10 egunez.</p> <p>Publikoa: 60 (izena emandako haurrak)</p> <ul style="list-style-type: none"> • Lehen urtea da GEUK udaleku itxi bat antolatzeko erronka hartzen duela. Esperientzia positiboa izan da eta GEUtik horrelakoak antolatzeko daukagun gaitasuna ikusi dugu, etorkizunerako lan ildo indartsu bat irekiz. • Orokorrean balorazio oso onak egon zirela esan ziguten AFAko teknikariek • Gasteizko Udalaren Gazteria sailaren <u>“Euskara eta Gazteak Praktika Onak” saria jaso zuen 2019ko Euskalakak.</u> • Langileen eskubideetan eta hurrekin egindako ekintzetan kalitatea bermatze aldera pleguan ezarritako prezio ia guztia bideratu zen helburu horretara. Inbertsio handia egin zen, eta ekintza honetatik GEUK ez du etekin ekonomikorik atera. Hau bermatzea mugarri izan da GEUK orain arte horrelako ekimenetan parte ez hartzearen arrazoietakoa bat.
AISIA: Marka eta erronka TOPAKETA	AFA eta Udalarekin batera antolatutako topaketa

Egitasmoa	Balorazioa
	<p>Topaketa honen helburu nagusia besteak beste, Aisialdiko eragile desberdinekin (enpresak, hezitzaileak, elkarteak, aisialdi taldeak, instituzioak...) lehenengo harremana eta diagnostikoa egitea zen:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Arabako aisialdi esparruko eragile desberdinak elkartzea. • Elkar ezagutza bideratzea: esperientziak partekatzeko eta harreman berriak sortzeko. • Aisialdiak euskararen erabileran duen garrantzia azpimarratzea • Baliabideak eskaintzea <p>Publikoa: 38</p> <ul style="list-style-type: none"> • Aipatu beharra dago enpresen aldetik hutsune handia egon zela: bakarra agertu zen; horregatik, AFA eta Udaletik enpresekin bakarrik bilera bat antolatzea da asmoa. • GEU elkartearen esku geratu zen diseinua eta kudeaketa (harremana, aurkezpena, dinamizazioa...)

2.KULTURA

Egitasmoa	Balorazioa
PARRAL EMANALDIAK	<p>Emanaldiak: 8 kontzertu (1 bertan behera). Aurreko urteotako kopuru berdina eman da.</p> <p>Protagonistak:</p> <ul style="list-style-type: none"> ● 2 taldeetan arabarren bat ● 5 taldetan guztiak gizonetzkoak ● 3 talde emakumeena ● Musikariak izandako istripu baten ondorioz saio bat bertan behera gelditu zen. <p>Publikoa: 525 partaide (iaz baino 190 gutxiago baina 2017ko kopuru berdintsua)</p> <ul style="list-style-type: none"> ● Zenbakietan hori ematen badu ere ez zaigu iruditzen iaz baino jende askoz gutxiago ibili denik. Parte hartzaileen kopurua ez da zenbaketa zuzenez egiten aforoaren betetze portzentualaren bidez kalkulatu da beraz kontatzailearen begiaren arabera aldaketak egon daitezke. ● Bertan behera gelditutako kontzertua aforoa betetzeko hainako erakargarritasuna zuela uste dugu. ● Parral tabernak urteak daramatza ikasturtean zehar asteartero kontzertuak antolatzen. Badira zenbait urte GEUK hilean behin kontzertu horietako bat antolatzen duela. Salbuespenak salbuespen, 60-80 bat kide biltzen da kontzertu hauetan. Musikariek orokorrean asko baloratu ohi dute Parralen jotzea eta gustura etorri ohi dira bertara jotzera.
BEGI BELARRI IKUS-ENTZUNEZKO ZIKLOA	<p>BEGI BELARRI: 7 dokumental + solasaldi (iazko kopuru berdina). <u>Oihanederrekin</u> batera antolatzen dugu</p> <p>Publikoa: 384 (iaz baino 270 gehiago)</p> <ul style="list-style-type: none"> ● Sortzaile bakar bat izan da Arabarra. ● 2 dokumental bereziki jendetsuak izan ziren. Horietako bat, Arabarra eta gertukoa izateagatik, seguruenik.

Egitasmoa	Balorazioa
	<ul style="list-style-type: none"> ● Salto handia egin da parte hartzean. Aurten pare bat saio oso jendetsu. Bataz bestekoaren bilakaera begiratzen badugu ere bilakaera ona da. ● Komunikazioan egindako lana klabea izan dela uste dugu. <p>LABURBIRA (Oihaneder): <u>Topaguneak</u> antolatzen duen film laburren zikloa</p> <p>Publikoa: 85 lagun (iaz baino 70 pertsona gehiago)</p> <ul style="list-style-type: none"> ● <u>IKA</u> eta <u>AEK</u>rekin batera antolatzen hasi gara eta oso emaitza onak eman ditu. ● Parte hartzeak azken urteetan izan duen gainbehera nabarmenari buelta ematea lortu dugu.
IRAKURLE KLUBA	<p>Saioak: 10. (Azken urteotan saio kopuruak berdinak).</p> <ul style="list-style-type: none"> ● Partehartzaile gehienak emakumeak izaten dira %60 inguru <p>Parte hartzaileak (guztira): 188 (Aurreko urteko kopurua mantendu da).</p> <ul style="list-style-type: none"> ● Ez da sortzaile Arabarrik egon eta hobetu beharreko kontua dela uste dugu kontuan edukita Gasteizen dagoen literatura sormena ez dela makala. ● Parte hartzaileak egonkortzeko joera dago. Zenbaitetan jende gutxi joan da, uste dugu zenbait data desegokiak suertatu direla. ● Publikoa zeozer gaztetzeko bilakaera xume bat ikusi dugu
Atzo, gaur eta biharko Gasteiz Euskalduna BISITA GIDATUAK	<p>Gasteizen euskararen bilakaera historikoa aurkeztuz alde zaharrean zehar egiten den ibilbide gidatua.</p> <ul style="list-style-type: none"> ● 2019an EZ DA EGIN

Egitasmoa	Balorazioa
	<ul style="list-style-type: none"> ● GEUK sortutako ekimen bat da, parte hartzaileengandik jasotako iritzien arabera oso balorazio onak izan ditu. ● Ahalegin berezia egin dezakegu saio batzuk eskaintzeko. Agian, publiko zehatz bat erabaki eta horra bideratu ahalegina.
KANTARI	<p>Kantari gaztetxoaren artean euskarazko kanta sustatzeko ikuskizuna da. Helburua neska-mutikoek euskal kanta abesten eta dantzatzen ondo pasatzea da, hortaz, ez du inolako lehiaketa kutsurik. 2016an antolatu zen estreinakoz KANTARI emanaldia Gasteizen, eta 380 umek hartu zuten parte.</p> <ul style="list-style-type: none"> ● <u>Alea eta Goienarekin elkarlanean eta Vital Fundazioa eta Udalaren Euskara Sailaren babesarekin antolatzen den ekintza.</u> ● Emanaldiak Vital Fundazioak Dendaraban duen antzokian egin dira Vital Fundazioarekin dugun hitzarmenari esker. ● Izen emate eta haurren parte hartzean zenbait <u>ikastetxeetako Hezkuntza Komunitateak</u> sekulako laguntza eskaini digu. ● Parte hartu duten ikastetxeak oso anitzak izan dira. ● Haurrek taldeka ematen dute izena ● Aleak sail berezia eraiki du Kantari dagozkionak kokatzeko(https://alea.eus/bereziak/kantari): Streaming-a, bideoak eta argazkiak. <p>Publikoa:</p> <ul style="list-style-type: none"> ● Izena eman duten haurrak: 650 (137 talde) ● Parte hartu duten haurrak: 400 (84) ● Haurrak ikustera Dendarabara hurbildutako publikoa: 2400 ● Parte hartu duten ikastetxeak: 15 ● Kantariren ALEAko orriaren bisitak: 22.000

Egitasmoa	Balorazioa
	<ul style="list-style-type: none"> • Arrakasta itzela lortzen ari den ekimena da. Dauzkagun baliabide finantzieroez mugatu dute garapen honi erantzuteko daukagun ahalmena. Logistikoki publiko handiagoa hartzeko gaitasuna bai baitugu. • Proiektuaren birmoldaketa prozesu batean sartu gara antolatzaile zein orain arteko babesleen adostasunetik, ekimenak izan duen bilakaerari behar bezala erantzuteko helburuz. Bidea hasi dugu helburu hau gauzatzeko aldera.
<p>EUSKARAK 365</p>	<p>Abenduaren 3an bertan egin izan den ekimenak eboluzio bat izan du 2015ean lehen aldiz antolatu genuenetik. Hasiera batean, Kandelen Mosaiko zen horretatik elkarlan desberdinen bidez (Udala, Alea, Oihaneder) kalejira eta emanaldia uztartu genituen.</p> <p>Bestalde, hainbat elkarte eta udalaren arteko elkarlanetik sortutako "Euskaraz 1+1... 11" festibalaren baitan sartu ziren egun honetan ospatutako ekimen guztiak.</p> <p>Euskararen Eguna izan du jatorri programak, izan ere, egun bateko ospakizuna izatetik 'Euskararen Astea' izatera pasatu baitzen lehenik, eta honen garapenetik, denbora-tarte are handiagoa hartzera pasatu da ekimena. Orotara beste 18 eragilerekin batera antolatu dugu elkarlanean festibala.</p> <p>EKINTZAK:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Tor Magoa, Kalejira, eta Kandelen Mosaikoa egin zen • Montatzeko Talde Dinamizatzailearen laguntza izan genuen eta oso ondo egon zen. <p>Publikoa: 250</p> <ul style="list-style-type: none"> • Aurreko urteetako esperientziatik ikusi genuen ekimen honetako Parte hartzaileen gehiengoa familiak izan zirela. Eta egiten zen eskaintzak ez zegoela publiko honi begira egokituta. Aurten bereziki hauei begira

Egitasmoa	Balorazioa
	<p>antolatu ditugu ekitaldiak eta arrakasta ikusita, uste dugu asmatu dugula formatuarekin. Tor magoaren emanaldiak aurreikuspenak gainditu zituen</p> <ul style="list-style-type: none"> • Kalejiraren hobekuntzarako Teantokoekin konpartitutako proposamen adostua aurkeztu diogu Udalari. • Mosaikoaren amaiera ez genuen irudikatzen jakin. • 5 urteren ostean Kandelen Mosaikoaren formatu agortuta dagoela uste dugu: bai ikuskizuna errepikakorra suertatzen delako zein sortzen den zabor kantitatea ingurumenaren jasangarritasunarekin koherentea ez delako. Argi dugu suak eta argiak indar berezia ematen diola emankizunari, gehiago neguko jaien kontestuan txertatzen badugu, beraz ildo horretan lan egingo dugu beste mota batetako emankizun bat plazaratzeko, parte hartzea oinarri izango duena eta ingurumenarekiko errespetua agertuko duena. • Egunari eman nahi diogun izaeraren inguruan ere hausnarketa behar dela uste dugu. Non geratu da “Euskarak 365 Egun” aldarrikapena?
<p>IGO (Irakurri Gozatu eta Oparitu)</p>	<p>Euskarazko irakurketa sustatzeko ekimena. <u>Topaguneak</u> bideratua eta Zenbait Tokiko elkartek kudeatuta (tarte GEU). Martxoaren 18tik maiatzaren 31ra. <u>Liburutegien sare publikoan</u> liburuak mailegatzearen truke deskontu bonuak jazotzen dituzu liburuak bueltatzean. Gainera hilean behin liburutegi bakoitzak bina erosketa bonu zozketatzen ditu. Bonu hauek programan parte hartzen duten liburu dendetan erabiltzeko aukera dago.</p> <ul style="list-style-type: none"> • Ekimena urtero bezala egin da. • 12 Liburu denda parte hartu dute • Oso balorazio positiboa egiten dute liburu dendek. • Ez da oso nabaria ekimenaren arrakasta baina ekarpen positiboak ekartzen ditu, adibidez elkarlana indartzen duela liburu dendekin. • 2020. Urtean, Topaguneak berak zuzenean kudeatzeko aurreikuspena dauka. GEU elkarteak beraz ez du zuzenean proiektu honi dagokion kudeaketarik egingo.

Egitasmoa	Balorazioa
DESKONTUAK	<p><u>Udal Antzoki Sareak</u> antolatutako euskarazko ekintzetan sarrerak eskaintzeko aukera dugu prezio merkeagoan. Udalak ezartzen du prezioa, GEUK emanaldiaren arabera sarrera kopuru zehatz bat eskatzen du eta GEUKide zein Mintzalagunei eskaini.</p> <p>Emanaldiak: 6 (iaz baino 2 gehiago)</p> <p>Publikoa: 106 (iaz baino 34 gehiago)</p> <ul style="list-style-type: none"> ● <i>Zaldi Urdina</i> eta <i>Ghero</i> oso arrakastatsuak ● Eskaintza Udal Antzoki sareak egiten digun eskaintzaren arabera da ● Hainbatetan, sarrera dezente saldu gabe gelditzen zaizkigu ● Eta bestetan sarrerarik gabe gelditu dira zenbait ● Zaila da eskaria doitzea.
GASTEIZTARRAK ARRAUN THE WORLD	<p>Oihanederrek antolatutako bidaia argazkien lehiaketa.</p> <ul style="list-style-type: none"> ● <u>Oihanederrek antolatuta, Auzoetako Euskara Elkarte, Gauekoak</u> eta GEU gaitu laguntzaile. ● GEU laguntzaile, epaimahai eta 4 diaporametako baten antolatzailea da, <u>DAZZ tabernarekin</u> elkarlanean gure kasuan. <p>Publikoa: 17 (iazko kopuru berdina)</p> <ul style="list-style-type: none"> ● Ekimen interesgarria da ● Parte hartzaile guztiekin elkarlan polita sortzen da ● Zenbakiak xumea badirudi ere ez da kopuru txarra horrelako ekimen batentzat

Egitasmoa	Balorazioa
SORTEGIAK	<p>Gazteen artean kultura sorkuntza sustatzeko saioak dira. Oihaneder, Bertsozale Elkarte, Gasteizko Udala eta GEUren arteko elkarlanaren bitartez antolatzen da. Izena Ematen dutenen artean, adituek gidatutako kultura disziplina ezberdinak landuko dituzten tailerrak egiten dira. Honako sortzaileak izan behar zuten aurtengo tailerren gidari: Oihane Perea, Miren Narvaiza, Edurne Azkarate eta Hala Bideoko lagun bat.</p> <p>EGITASMOA EZ DA AURRERA ATERA</p> <ul style="list-style-type: none"> • Eskoletan egitasmoaren inguruko aurkezpenak egin eta aurre lanketa guztia egin arren, pare bat gaztek baino ez zuten izena eman. Hau dela eta, ez da egin. • Agian, Sortegien formatua aldatu behar da. Buelta bat eman behar saio egitasmoari gazteentzat erakargarriago izateko.
IZAN ZAITEZ NEU KONTZERTUA	<p>Leokadia-Zabalate elkarteak antolatutako ekimena lagunduz parte hartu. Euskararen sustapena euskarak presentzia askorik ez duen eremu batean, elkarteak berak gure kolaborazioa bilatu zuen eta analisi horretatik estrategikotzat jo genuen.</p> <p>Publikoa: 472</p> <p>Leokadi-Zabalateko kideekin konpartitutako balorazioa:</p> <ol style="list-style-type: none"> 1) Jendearen parte hartzea, aurreikuspen optimoa gaindituta (400) 2) Gaixotasuna gizartean bistaratzea lortu da 3) Ikerketarako dirua lortu da 4) Euskaraz egin da oso osorik. GEUk egindako lana oso ondo baloratzen dute, ALEArekin egindako lana ere oso ondo eta pozik daude guk egindako jarraipenarekin. Emanaldian giro polita egon zen denetariko jendea eta tartean zenbait erdaldun euskara hutseko emanaldi batez gozatzen. Medioetan presentzia handia, El Correo, DNA, Hala Bedi, ALEA, Gasteiz Hoy, Ser, EITB... Sare Sozialetan jarraipen polita eta guk egindako jarraipena ere polita. Elkarte

Egitasmoa	Balorazioa
	euskaltzaleekin harremana sortuta gustura. Parekidetasuna bilatu dute emanaldietan eta oso ondo atera zen, publikoan emakumeen presentzia %60.

3.FORMAZIOAK

Egitasmoa	Balorazioa
FORMAZIOAK	<p>Hirugarren urtez gure lurraldeko haur eta gazteekin lanean egon behar diren hezitzaileak euskararen erabileran eragiteko estrategietan formatu ditugu.</p> <p>Hezitzaileek (225 lagun), familiek (200 lagun) eta aisialdiko eragile desberdinek (23 lagun) osatutako 3 difusio talde kudeatzen ditugu. Hauek harreman sare estu bat mantentzen laguntzen digute.</p> <p><u>GASTEIZKO UDALA</u> (ikasturtean zehar saioak)</p> <p>HEZITZAILEENTZAKO FORMAKUNTZA SAIOAK (12 saio – 177 hezitzaile)</p> <ul style="list-style-type: none"> • Jantokia, Eskola Orduz Kanpoko jarduerak (kirol esparrua eta kultura esparrua) • Opor programa (eskoletan egiten diren Udalekuak eta Udalak udan kudeatzen dituen aisialdi eskaintzak: jolas txokoak, Pradoko jolas gunea...). <p>HITZALDI eta LANTEGIAK (16 saio – 165 parte hartzaile)</p> <ul style="list-style-type: none"> • Saio motak: “Utiliza el euskera sin saberlo”, “El euskera en pantalla” / “Pantailetan euskaraz”, “Juegos en familia... y en euskera” / “Jolasak familian eta euskaraz”, “Haur Kantuak”. • Haur eta familiei zuzenduta. Saio batzuk euskara oso gutxi dakiten edo ez dakiten gurasoei zuzenduta daude, eta beste batzuk guraso euskaldunei. <p>AHOLKULARITZA (4 hezkuntza zentro)</p> <ul style="list-style-type: none"> • San Martin, Errekabarri, Angel Ganivet eta Mariturri • Hezkuntza Zentroei euskararen erabileran eragiteko hainbat estrategia eta proposamen egiten zaizkie, horretarako aholkularitza eta baliabideak eskainiz. • Ikasturtean zehar 2 bilera egin dira Zuzendaritza eta Guraso elkartearekin batera.

	<p><u>ARABAKO FORU ALDUNDIA</u> (euskara saila)</p> <p>HEZITZAILEENTZAKO FORMAKUNTZA SAIOAK (120 lagunek jaso dute formakuntza)</p> <p>“Hau jolasa baino gehiago da” gidan oinarritutako formakuntza saioak dira; Foru Aldundiak finantziatutako edozein udaleku motan hezitzaileen %70ak saio hau jasota izatea beharrezkoa da (pleguetan horrela adierazten da).</p> <ul style="list-style-type: none"> ● Arabako Udaleku itxi zein irekiak: 11 saio – 95 hezitzaile ● Ludotekak: 5 saio – 25 hezitzaile
<p>MOTIBAZIO TAILERRAK</p>	<p>Euskararen erabilera sozialaren inguruan hausnartzeko saioa da. Euskararen aldeko argudioak eskaini eta, aurrez aurreko elkarrizketetan euskarari eusteko teknikak baino, hausnartzeko arrazoiak eta gakoak jorratzea du helburu. Eta bide batez, parte hartzaileen euskararen aldeko jarrerak indartu.</p> <ul style="list-style-type: none"> ● <u>Zergatik ez?</u> Euskarazko bertsioa ● <u>Compartimos</u>: Gaztelerakoa <p>Saioak: 3 (iaz baino 3 gutxiago)</p> <ul style="list-style-type: none"> ● 2 Zergatik Ez? eta 1 Compartimos. ● HAZI-ko Euskara Batzordea, Gamarrako Ostalaritzako ikasleak, URAko langileak. ● EMUNen bitartez lotua HAZIkoa <p>Parte hartzaileak: 45 (iaz baino 13 gutxiago)</p> <ul style="list-style-type: none"> ● Saio interesgarriak dira eta oso balorazio onak ditu parte hartzaileen aldetik ● Baina <u>“saltzeko”</u> ahalegin handiagoa egin beharko genuke.

4.AKTIBAZIOA

Egitasmoa	Balorazioa
<p>MINTZALAGUNA</p>	<p>EKIMENA:</p> <ul style="list-style-type: none"> ● 660 Partaide, 70 talde. ● Azken urteetako bilakaera positiboa zertxobait murriztu da. Partaideen datu baseari eta ordainketei jarraipen handiagoa eginda parte hartzearen datu errealago bat lortu dugu. ● Esan daiteke partaide kopuruak 2018an jo zuela goia eta egonkortze kurba batean sartu dela. Datuak egonkortzeak ez gaitu kezkatzen, proiektuaren zenbatekoetan baino kalitatean arreta jartzeko aukera ematen baitigu. Hala ere, EH osoan mintzalagun gehien duen herrietariko bat izaten jarraitzen du Gasteizek, Donosti eta Iruñaren atzetik. ● <u>Topaguneak</u> antolatutako ekintza da EH mailan. ● Ekimenen parte hartzeko motibazioez partaideek egiten duten balorazioetan oso nabarmena da hasieran agertzen diren helburu instrumentaletatik (perfilak, azterketak...) denbora pasata helburu emozionaletara (ondo pasatzea, lagunak egitea...) egiten den bilakaera. ● Nabarmena da ekimen honetan emakumeek duten presentzia, ia partaideen %70 baitira. <p>EKINTZA OSAGARRIAK</p> <p>Ekintzak: 12 (iaz baino 2 gutxiago)</p> <ul style="list-style-type: none"> ● <i>Mintzaibilaldiak</i>: 5 ● Tailerrak: 3 ● Bisita Gidatuak: 2 ● Sukaldaritza: 1 ● Poteoa: 1

Egitasmoa	Balorazioa
	<ul style="list-style-type: none"> ● Sagardotegia/Upategia (bertan behera) <p>Partaideak: 143 (iaz baino 150 gutxiago)</p> <ul style="list-style-type: none"> ● Sagardotegia/Upategia egin ez izanak eragin handia izan du partaideen batura totalen. Normalean ekintza honek 40-60 bat lagun elkartzen baititu. ● Hala ere ikusten da parte hartzean jaitsiera nabarmen bat izan dela.
<p>EUSKARALDIA</p>	<p>2018an izandako arrakastaren ostean. <u>2019an trantsizio urtea izan da ekimen honentzako, ez horregatik lanik gabeko urtea, izan ere Euskaraldia bezalako ekimen baten urtebeteko lana baino gehiago eskatzen baitu behar bezala gauzatzeko.</u> Hurrengo zerrendan ikus daitekeen bezala GEU elkarteak ez da geldirik egon 2019 urtean ekimen honi dagokionean!</p> <p>Egindako lanak:</p> <ul style="list-style-type: none"> ● 2018ko Ekimenaren balorazioa eta analisisia ● “11 baino +, Has Gasteizen euskaraz bizitzen” dokumentalaren aurkezpena. ● Soziolinguistika Klusterrak Euskaraldia Gasteizi buruz egindako ikerketaren aurkezpena ● Gasteizek 2020ko edizioan parte hartzen zuela irudikatzeke prentsa agerraldia ● Auzoetako aurkezpenak eta Auzo Batzordeen ber aktibazioa: 8 auzo aktibatuak 2019an eta beste 3, 2020 hasieran. ● Koordinazioa bilerak: Gasteizko Talde Motorea, 2020ko Euskaraldiaren diseinua lantzeko EH mailako koordinazio bilerak, Gasteizko Euskalgintzako kideekin harremanak... ● Erakundeekin harremanak: Estrategia mankomuna eta finantzazioa lantzeko. ● Komunikazioa lanak, prentsa, sare sozialak elikatu...

Lan hauek guztiak burutzeko eta Gasteizko Udalarekin lortutako akordioak tarteko kide berri bat batu da GEUren lantaldera Euskaraldiaren Koordinazioa eta Dinamizazioa gauzatzeko helburuz.

2019rako kontratuari bukaera emanda, Euskara Elkargunean adostasunez hartu zen Euskaraldiaren estrategikotasunaren adostasuna. Eta Hitzarmen bat sinatzeko bidea ireki zen 2020ko Euskaraldia gauzatzeko bidean, gaur gaurkoz 2020rako Udalarekin sinatu beharreko akordio hau gauzatu gabe dago, Euskaraldia 2020 burutzea arriskuan dagoelarik.

Lehen aipatu ditugun arrazoiak tarteko, uste dugu Euskaraldiaren koordinazio eta dinamizazioa ezin dela urtez urteko kontratuen edo hitzarmenen menpe egon. Gutxienez biurteko akordioak sinatu beharko lirateke proiektua behar bezala gauzatu, trantsizioa bermatu, jarraipen egokia egin eta arriskuak alde batera uzteko.

5.HEDABIDEAK

1. ALEA

Dagoeneko 5 urte bete ditu ALEA Arabarako euskarazko hedabideak. GEU elkarteak ALEAren bultzatzaile eta sortzaile izan da eta Administrazio kontseiluaren kide da GEU, Goiena eta Berriarekin batera. ALEAko zuzendari, Aritz Mtz de Lunak azalpen zehatzagoak emango ditu ALEAren 2019ko egitasmoen buruz, baina hiruzpalau puntu azpimarratzeko beharra ikusi dugu memoria honetan.

2019ko helburu nagusia egoera ekonomikoa egonkortzea izan da, hein batean erakundeekin ITUNA deritzon finantzazio akordio gauzatzearen menpe zegoena. Urtea bukatzeaz zela plazaratu zen ebazpena, atzerapen honek oso egoera kezagarrian jarri zuen Arabako tokiko hedabideen finantza egoera, beraien jarraikortasuna zalantzan jartzeraino. Behin Itunaren lehen urteko zalantzak gaindituta, espero dugu 2020an modu efizienteago batean burutzea.

2019 urteko beste erronka garrantzitsua webguneko edukiei indarra ematea izan da, lan taldearen dedikazioaren zati handiago bat honetara bideratuz.

Bestalde, 2019urte bukaeran ALEAk bere bulegoa aldatu zuen. Antonio de Sucre kalean dago gaur egun bulegoa, Jose Mardones kaleko saskibaloia eta futbol kantxen parean.

Azkenik, ALEAk lehen pausoak eman ditu Arabako Kuadrillean komunikazio proiektu berriak hasteko bidean. 2019an Lautadarako lanketa jarri genuen martxan bertako euskalgintzarekin elkarlanean, bere fruituak 2020an zehar ikusiko ditugu.

2. EUSKARAREN AGENDA

Euskararen Agendaren helburua Arabako edozein txokotan Euskaraz antolatzen den edozein ekitaldi publikoari modu bateratuan eskuragarri jartzea da. estrategikotzat jo ostean Bi ekimen hauen berri ALEAko Zuzendari Aritz Mtz. de Lunak azalduko digu Batzar Orokorrean bertan. 018 urtera arte GEUk egiten zuen bilketa eta publikatze lana, baina horretarako ALEA aldizkariaren euskarriak baliatzen genituen. 2018an ALEA eta GEUk egindako hausnarketaren ondorioz erabaki zen lan honen gauzatzea osorik ALEAren esku jartzea, eta trantsizio hau egiteko beharrezko akordioak egin genituen AFA, Gasteizko Udala eta entitate babesleekin. 2019ko lehen 3 hilabeteak behar izan genituen teknikoki traspasoa egiteko eta martxotik aurrera zuzenean ALEAk kudeatutako zerbitzua izatera pasa da.

c. ERAGIN

Eten gabeko harremana bai euskalgintzaren edo euskararen inguruan lan egiten duten entitateekin zein bestelakoekin ere

1. Euskaldunak eta Euskaltzaleak

2. Euskalgintza

- a. Harreman etengabe eta zuzena dugu Gasteizko zein Gasteiztik kanpoko Euskalgintzako hainbat entitaterekin.
- b. Topagunearen Zuzendaritza Batzordeko kide da GEUko Lan Taldeko Koordinatzailea. Bertan modu pertsonalean parte hartzen badu ere.

3. Erakundeak:

- a. Gasteizko Udaleko Euskara zein Kulturako Elkarguneetan parte hartzen dugu. Udaleko Gizarte Kontseiluan Euskara Elkargunearen bozeramale da GEU.
- b. Arabako Foru Aldundiko Euskara Batzordearen kide da GEU.
- c. Harreman etengabe eta zuzena dugu Gasteizko Udaleko Euskara, Kultura eta Gazteria sailekin. Beste kontu batzuek direla eta Ingurumena bezalako sailekin ere izan dugu hartu-emanik.
- d. Harreman etengabe eta zuzena dugu AFAko Euskara eta Gazteria sailekin zein Kuadrilletako Euskara teknikariek.
- e. Arrazoi tekniko zein kudeaketakoak tarteko, Eusko Jaurlaritzako zenbait teknikarirekin ere badugu harremana. Baina ez dugu parte hartzen bertako azpiegituretan Topagunearen bitartez ez bada.

d. ZEHARLERROAK

1. KOMUNIKAZIOA:

- a. Lan Taldeko gorabeherak direla medio 2019 bukaerara arte ezin izan genituen Komunikazioko lana behar bezala aurrera eraman.

- b. 2019 urte bukaeran komunikazioari buruzko zenbait erabaki garrantzitsu hartu ziren, GEUren irudi berriaren lanketa, Webgune berriaren lanketa eta sare Sozialetako presentzia lantzea besteak beste. 2020an garatu beharrekoa dira ildo hauek.
- c. Komunikazioarekin lagunduko digun Azpibatzerde baten sorrera ere onartu zen. Aholkularitza lana egin dute kide hauek.

2. ADMINISTRAZIOA eta FINANTZAZIOA.

- a. Aholkularitza berriarekin hasi ginen lanean eta honen eraginez, kontabilitatea eraginkor eta fidelagoa bihurtu da.
- b. Txosna kudeatzeko kontratua zuzenean Udalarekin egin ahal izateak proiektu horren mozkinetan eragin zuzena izan du eta inpaktu handia urteko ustiapen kontuan, Lan Taldearen egonkortasuna indartuz eta auto finantzazioa handituz.
- c. Proiektu berri ugari martxan jartzeko aukera izan dugu 2019an, honek elkartearen eragin eremua handitzeaz aparte, langileen nominak hobeto babesteko aukera eman digu (zenbat eta proiektu gehiago nominak babesteko aukera handiagoa).